

## **GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIAREN KONTSEILU ERREKTOREAREN 2018ko AZAROAREN 19ko BILKURAREN AKTA.**

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren egoitzan (Lehendakaritzako eraikina, Nafarroa kalea 2, Gasteiz), 2018ko azaroaren 19ko 11:00etan, Kontseilu Errektorearen bilkura hasi da, honako pertsona hauek bertaratu direlarik:

- Presidente jauna: Jonan Fernández Erdozia jauna, Agentziaren eta haren Kontseilu Errektorearen lehendakaria eta presidentea, hurrenez hurren, Jaurlaritzako lehendakariaren eskuordetzaz (11/2017 Dekretua, apirilaren 25ekoa)
- Batzordekidea: Irma Basterra Ugarriza andrea, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendaria, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren izenean.
- Batzordekidea: Sofía Marroquín Guerrero andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren izenean.
- Batzordekidea: Iñigo Eguren Valera jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren izenean.
- Batzordekidea: Patricia Bárcena García andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren izenean.
- Idazkaria: Paul Ortega Etcheverry jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendaria

Ezin etorria adierazi dutenak:

- Batzordekidea: Monika Hernando Porres andrea, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendaria, Lehendakaritzaren izenean.
- Batzordekidea: Alberto Alberdi Larizgoitia jauna, Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu sailburuordea, Ogasun eta Ekonomia Sailaren izenean.
- Batzordekidea: Fátima Ansotegi Elordi andrea, Administrazio eta Finantziario Sanitarioko sailburuordea, Osasun Sailaren izenean.
- Batzordekidea: Ana Isabel Oregi Bastarrika andrea, Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubide eta Berdintasun Batzordearen presidentea, Eusko Jaurlaritzaren izenean.
- Batzordekidea: Oihana Etxebarrieta Legrand andrea, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide eta Berdintasun Batzordeko kidea, Eusko Legebiltzarren izenean.

Era berean, gonbidatuta eta gai-zerrendan sartutako gaiak aurkezteko laguntza teknikoa emateko, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Koordinazio Teknikoaren arduradun Ainara Arrieta Archilla andrea ere bertaratu da.

**Gai-zerrenda:**

1. Urriaren 15ean egindako aurreko bilkuraren akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea.
2. 2018ko proiektuetarako laguntzak emateko proposamena onartzea, hala badagokio
3. Galderak eta eskaerak.

## **1. Urriaren 15ean egindako aurreko bilkuraren akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea.**

Bertaratuek aho batez eta oharririk gabe onartu dute akta.

## **2. 2018ko proiektuetarako laguntzak emateko proposamena onartzea, hala badagokio**

2018rako laguntza emateko deialdiaren proposamena aurkeztu da, onartzeko. 35.500.000 milioi euroko deialdi honekin –aurrekontuari dagokionez GLEArentzat garrantzitsuen dena– 23 herrialde pobretutako 90 lankidetzaproiekturi eta Euskadin gizarte-eraldaketarako hezkuntzako proiektuei laguntza eman ahal izango zaie. Azalpena modu xehatuan ematen da, azterketa sektorial eta geografikoan oinarrituta eta erantsitako dokumentazioari jarraikiz.

Proposamena azaldu ondoren, presidenteak laguntzak emateko deialdiaren proposamena onartzeko bozketa egitea proposatu du. Bozketaren emaitza honako hau izan da: aldeko 4 boto eta 2 abstentzio. Beraz, laguntzak emateko proposamena onartu da, eta azaroaren 20ko Gobernu Kontseiluari jakinaraziko zaio eta EHAAz azaroaren 28an argitaratuko da.

## **3. Galderak eta eskaerak**

Jakinarazi da Lankidetzarako Euskal Kontseiluaren bilkuran –non Kontseilu Errektoreko hainbat kidek parte hartzen duten– GLEAren ekintza humanitarioko laguntzetarako Dekretua aldatzeko proposamenaren aldaketa nagusiak aurkeztuko direla, Euskal Kontseiluari dagokiolako proposamenari buruzko aginduzko txostena jaulkitzea. Kontseilu Errektoreak, dagozkion organoen txostenak jaso ondoren, laguntzak emateko irizpide orokorrak onartu beharko ditu eta aldatutako Dekretua Gobernu Kontseilura bidaltzea proposatu beharko du.

Kontseilu Errektorea 11:30ean amaitu da.

OE. Jonan Fernández Erdozia jauna,  
Agentziaren eta haren Kontseilu  
Errektorearen lehendakaria eta  
presidentea, hurrenez hurren,  
Jaurlaritzako lehendakariaren  
eskuordetzaz (11/2017 Dekretua,  
apirilaren 25ekoa)

Paul Ortega Etcheverry  
Kontseilu Errektorearen idazkaria  
GLEAren zuzendaria